



## **BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA**

### **Akta**

2015eko maiatzaren 21ean, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan, goizeko 10:30ak direla.

#### **Bertaratu direnak:**

- Angel Toña Guenaga – Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua. Presidentea
- Roberto Vidal – Bidesari. Presidenteordea
- Josune Alkain – AECC Gipuzkoa
- Pilar Redondo – SECOT Araba
- Jennifer Fernández – AGLE
- Antxon Velasco – Trebeak Eskautak Federakuntza
- José Luis Elosua – Nagusilan
- Olatz Miranda – ATZEGI
- Arantzazu Lersundi – DYA Gipuzkoa
- José Alberto Vicente – Kiribil Sarea
- Maite Fernández – FEVAS
- Ricardo Sánchez – Futubide
- Miguel Ángel Gómez – Gazteleku
- Iñaki Ramírez de Olano – CEAR Euskadi
- Javier Carnicero – Portugaleteko Aisialdi Sarea
- Natxo Arnaiz – Bolunta
- Laura Bañales – Sartu Araba
- Miren Gurrutxaga – Gizalde
- Jose Luis Madrazo – Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria
- María del Río – Planifikazio, Inbertsio eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendaria. Gipuzkoako Foru Aldundia
- Rafael Hernández – Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria.
- Andoni Rekagorri – Bizkaiko Foru Aldundiko Administrazio eta Plangintzako zuzendari nagusia.
- Estela Sánchez – Bizkaiko Foru Aldundiko teknikaria.
- Dorleta Goiburu – EUDEL
- Jose Antonio Galera – Ingurumeneko sailburuordea
- Pedro Anitua – Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria
- Paul Ortega – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria

- Jon Zuazagoitia – Osasun Saileko teknikaria
- Pello Telleria – Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako teknikaria
- Ramon Andrinua – Lan, Enplegu eta Gizarte Politikarako Bizkaiko Ordezkaritzako teknikaria. Idazkaria

#### Gai-zerrenda:

- 1.- Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.- Kontseiluko kideen aurkezpena.
- 3.- Kontseiluko lehendakariordearen eta Lantalde Iraunkorreko kideen hautaketa.
- 4.- Txostenaren aurkezpena: *Partaidetza soziala eta ekintza boluntarioa. Diagnostikoa eta joera berrien identifikazioa, udal-azterketa kualitatibo batetik abiatuta EAEko hiru eremutan.*
- 5.- 2015ean garatuko diren ekintzak.
- 6.- Eskaerak eta galderak.

#### **1.- Aurreko bilerako akta onestea**

2015eko martxoaren 27an egindako azken bileraren akta onartu da.

#### **2.- Kontseiluko kideen aurkezpena**

Boluntariotzaren erakundeek Kontseiluan duten ordezkaritza berritu denez, etorritako pertsona bakoitzak bere burua aurkeztu du eta ordezkatzen duen erakundeari edo instituzioari buruzko azalpen laburra egin du.

#### **3.- Kontseiluko lehendakariordearen eta Lantalde Iraunkorreko kideen hautaketa**

Ramon Andrinuak jakinarazi du joan den maiatzaren 18an, astelehena, Lantalde Iraunkorrek bilerara deitu zituela Kontseiluan boluntariotzaren erakundeek dituzten ordezkarri berriak. Bilera horren helburua zen gizarte-erakundeek Kontseiluan dituzten ordezkarri berriei harrera egitea eta bertako eginkizunen eta zereginen berri ematea. Bilera Bilbon egin zen, Bolunta erakundearen egoitzan.

Aurkezpenak egin ondoren, Kontseiluaren eta Lantalde Iraunkorraren funtzionamendua eta eginkizunak azaldu ziren, Kontseiluaren ibilera osoa eta bidean diren lanen gaineko begiratu laburra egin zen, eta azkenik, erakundeen ordezkariek aukeratu zituzten Kontseiluaren lehendakariordetza eramango zuen pertsona, betiere boluntariotzaren erakundeetako kide bat, eta boluntariotzaren erakundeen ordezkaritzatik Lantalde Iraunkorra osatuko zuten

pertsonak -presidenteordea gehi hiru kide-. Aukeratutakoak izan ziren: Kontseiluko presidenteordea, Kiribil Sareko José Alberto Vicente, eta iraunkorreko kideak Arabako SECOT erakundeko Pilar Redondo, Portugaleteko Aisialdi Sareko Javier Carnicero eta FEVASeko Maite Fernández.

Hautaketa onetsi egin da.

**4.- Txostenaren aurkezpena: Partaidetza soziala eta ekintza boluntarioa. Diagnostikoa eta joera berrien identifikazioa, udal-azterketa kualitatibo batetik abiatuta EAEko hiru eremutan.**

Txostenaren aurkezpena azterlana egin duen ADO2 aholkularitza-entresako aholkulari Eduardo Díazek egin du. Akta honekin erantsita doaz aurkezpenaren power pointa eta azterlanaren testua bera.

Jarraian, hasiera eman zaio iruzkinak eta galderak egiteko tarteari.

José Luis Madrazok adierazi du azterlana egin zela dagoeneko ezagunak diren partaidetza moduez gain bestelako modu berririk agertzen ari ote zen ikertzeko asmoz. Eta galdera luzatu du, ea ikerlan horretatik ondorioztatu daitekeen administrazioentzako jardunbide-aholkuren bat.

Eduardo Díazek adierazi du partaidetza-modu berriak ageri direla formalki eratu gabeko kolektiboen bidez; ez dira formalki eratu, hala nahi izan dutelako, edo bertan biltzen diren pertsonak etorkinak direlako, EAEko hizkuntzak menderatzen ez dituztenak, eta elkarte horiek formalki eratzeko egin behar dituzten administrazio-izapideak egiteko zailtasunak dituztenak. Kasu horietan, komenigarria litzateke administrazioek haiei laguntzea beren kolektiboa arautzeko aukera izan dezaten, hala nahi badute.

Paul Ortegak galdetu du ea ingurumeneko eta garapenerako laguntzako erakundeen barne-funtzionamendua besteena bezalakoa ote den.

Eduardo Díazek erantzun du sektore guztietako erakundeen artean antzeko barne-funtzionamenduak daudela, alegia, jarduera-eremuak ez duela desberdintasunik eragiten antolamenduan.

Natxo Arnaizek adierazi du ikerlana kualitatiboa izanik, ez dakigula zenbat jende dagoen gizartearen eraldaketan inplikaturik. Planteatu du EUSTAT erakundeari proposatzea etorkizuneko azterlan soziodemografikoetan sartzea EAEko biztanleen partaidetza sozialaren inguruko adierazleak, jakin ahal izateko gure autonomia erkidegoko biztanleriaren partaidetza sozialaren bolumena eta partaidetza hori norainokoa den.

Jon Zuazagoitiak esan du Osasun Planaren adierazleetako bat dela 60 urtetik gorako pertsonetatik zenbat diren elkarteren bateko kide, eta datu hori EUSTATEk jasotzen duela.

José Luis Madrazo ados dago planteatu den horrekin, eta EUSTATEkin kontaktua egin eta eskaera helaraziko diola esan du.

Antxon Velascok esan du ikerlanean adierazitakoez gain badirela partaidetza zailtzen duten beste hainbat faktore, esaterako bide publikoa erabiltzeko zailtasunak, auzo-zentro edo lokalak erabiltzeko zailtasunak, eta beste hainbat auzi, esaterako datuen babesa eta segurtasuna, izan ere, haren iritziz, horien zaindu behar dira, baina horien inguruko exijentziak sinplifikatu litezke.

## **5.- 2015ean garatuko diren ekintzak**

Roberto Vidalek azaldu ditu 2015ean abiatu diren eta aurreikusten diren ekintzak.

9. ekintza.- Erakundeen komunikazioari laguntzeko plana, aurten garatzeko asmoa dagoena, orain arte egindakoaren ildotik jarraituz. Lanerako planak lau helburu ditu:

- Gizarte-erakundeetan kanpoko komunikazioaren ardura duten pertsonen arteko topaketa antolatzea eta gogoeta egitea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak integratzea, eta batez ere Internet eta hark eskaintzen dituen tresnak, komunikazio-bidea errazten digutelako.
- Komunikazioa erakundearen eginkizunaren zehar-lerro gisa ulertzea eta kanpoko komunikazioa planifikaziotik kudeatzen ikastea.
- Ikus-entzunezko komunikabideetako elkarrizketa prestatzea gure mezuak zabaltzeko oinarritzko tresna gisa.

Helburu horiei begira hiru jarduera egingo dira:

- IKTei buruzko lan-saioa. Saio bana lurralde historiko bakoitzeko, 4 orduko iraupenez. Bilbon maiatzaren 11n, Donostian 12an eta Gasteizen 13an. Ekintza burutu da.
- Komunikazioaren plangintzari buruzko tailerra. Saio bana lurralde historiko bakoitzeko, 4 orduko iraupenez. Bilbon ekainaren 8an, Donostian 9an eta Gasteizen 10ean.
- Elkarrizketa-tailerra. Saio bana lurralde historiko bakoitzeko, 5.30 orduko iraupenez. Bilbon azaroaren 23an, Donostian 24an eta Gasteizen 25ean.

10. ekintza.- Eusko Jaurlaritzaren boluntariotzaren webgunea eguneratzea. Urte osoan zehar.

12. ekintza.- Autonomia Erkidegoko hiru udalerritan boluntariotzaren praktikari eta partaidetza sozialari buruz egindako ikerketaren aurkezpena. Gaur aurkeztu da Kontseiluan. Hurrengo asteetan beste hainbat forotan aurkeztu eta zabalduko da.

15. ekintza.- Boluntariotza gazteen artean sustatzeko kanpaina. Ekintza bateratu bat prestatzen ari da Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren Zuzendaritzarekin, Gazteriaren Euskal Kontseiluarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzarekin.

17. ekintza.- Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna ospatzea. Lehendakaritza boluntariotzari aitortza eskaintzeko ekitaldi instituzional bat egiteko asmotan da.

18. ekintza.- Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizazioa sustatzeko etengabeko programa. Boluntariotzaren agentzien ekimenez Gipuzkoan eta Bizkaian aspaldi egiten diren praktiketako esperientziak erabiliko dira. Asmoa da hezkuntza-sistema nolabait inplikatzeko. Badugu komunikazioa Hezkuntza Sailarekin, eta lotunetzat har daiteke balio zibiko, sozial eta etikoen inguruko ikasgai etorkizunekoak.

23. ekintza.- Euskal boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren topaketa. 2016an egitea proposatu da, eta aurrean hura prestatzen hasteko batzorde bat eratzea.

25. ekintza.- Gizartean parte hartzeko era berrien inguruko mintegia. Autonomia Erkidegoko hiru udalerritan boluntariotzaren praktikari eta partaidetza sozialari buruz egindako ikerketaren ondorioak ikusita zehaztuko da.

27. ekintza.- Partaidetzako ekimen berriak abian jartzeko proiektu-lehiaketa. Ikerketaren ondorioak ikusita zehaztekoa.

28. ekintza.- Boluntarioen formakuntza. Kontseilua gogoeta egiten ari da, boluntarioei eskaini beharreko prestakuntzaren inguruko analisi bat egitea komeni ote den, eta orobat, sentsibilizazio eta kontakturako lehenengo jardunaldi bat egitea, hurrengo hauteskundeetatik ateratzen diren tokiko hautetsi berriekin.

31. ekintza - Topaketak Akitania Eskualdeko Boluntariotzaren Kontseiluarekin Eguna zehazteko dago

Boluntariotzak Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko urteko txostena. Boluntariotzari buruzko 17/1998 Legearen arabera, txosten hori egitea Kontseiluaren eginkizunetako bat da. Proposamena txosten-eredu bat prestatzea da, gehienez 15/20 orrialdekoa, urtearen amaieran osatu eta hurrengo urteetan berritzeko modukoa.

Ekintza hauek egiteko aurrekontua 97.000 eurokoa da, 2014ko ekintzetarako aurrekusten zen kopuru bera.

Azaldutako ekintzen planteamendua onartzen da.

**6.- Eskaerak eta galderak.**

Ez da galderarik, ez eskaerarik egon.

Beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da 12:30etan.

O.E.:

Ramon Andrinua

Angel Toña